

Betetzeari buruzko jardunaldia

*Betetze-programak balio-kateko
oinarrizko elementu gisa*

Aurrekariak

2010eko Zigor Kodea aldatu ostean, Espainian enpresaren esparruan delituak, legez kontrako praktikak edo jarrera irregularrak egitea saihestera bideratutako hainbat betetze-sistema ezarri dira.

Era berean, oro har, korporazio eta talde multinazional handiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, iruzur eta ustelkeriaren prebentzioaren arloko nazio mailako eta nazioarte mailako estandarrei erantzuten dieten sistemak garatu dituzte. Betetze-sistemek garapen-aukera zabala dute oraindik gainerako enpresa eta entitate publikoetan. Askotan, organizazio horien dimentsio txikia edo betetzeko eginkizuna modu eraginkorrean aurrera eramateko beharrezkoa den ezagutza falta dira betetze-sistema sendo bat garatu eta denboran eguneratuta mantendu ahal izatea mugatzen duten faktore nagusiak.

Sistema horien garapen falta arrisku bat da gure enpresa-sarearen lehiakortasunerako, izan ere, betetze-sistemak ondasun zein zerbitzuak (sektore publiko nahiz pribatuan) erosteko lizitazio-prozesuetara sartzeko funtsezko elementu bilakatzen ari dira. Gaur egun lehiarako abantaila gisa hautematen diren betetze-sistema eraginkorrak ezartzen direla ziurtatzea, etorkizun hurbilean, erakundea bere enpresa-jardueran harremantzen den interes-taldeek eskatzen duten beharrezko baldintza izatera pasako da.

Hauexek dira bereziki praktikoa den jardunaldi honen helburuak: betetzearen inguruko arloan, enpresa-harremanetan ezinbestekotzat jotzen diren funtsezko alderdietan sakontzea eta eragile publiko eta pribatuek lizitazio-prozesuetan betetze-programei ematen dieten garrantzia lehen eskutik ezagutzea.

Horrez gain, ASCOM erakundeko presidentek Betetze sistemak garatzeko I. programa aurkeztuko du. Programa horrek, Iberdrolaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik, enpresa eta erakundeei betetze sistema eraginkorrak garatzen laguntzeko xedea du.

Programa

8:30-9:00 h. Bertaratutakoei harrera

9:00-9:15 h. Jardunaldiaren irekiera

- Ibone Bengoetxea, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua.
- Asís Canales, Iberdrola taldeko erosketen zuzendaria eta Iberdrolako erakunde-ordezkarria Euskadin.

9:15-9:20 h. Jardunaldiko egitarauaren aurkezpena

- Leyre Vitorica, Bizkaiko Foru Aldundiaren aholkularia

9:20-10:00 h. Aurkezpena: *“Gobernu korporatibo eraginkorra: betetzea”*

- Despina Pachnou, OCDEko Eskumen-banaketako aditua

10:00-11:00 h. Aurkezpena: *“Erosketa eta kontratazioa: betetze sistemen garrantzia eta kudeaketa arduratsua hornitzaileen hautaketan eta interes taldeen kudeaketan. Ikuspegi pribatua eta publikoa”.*

- Ramón Zumárraga, Iberdrolako Erosketa Zerbitzuko zuzendaria.
- Nerea Martiartu, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusia

11:00-11:30 h. Atsedena

11:30-12:30 h. Mahai-ingurua

Enpresa-errealitate desberdinetara egokitutako betetze-programak ezartzea.

- Fernando Zabalgoeascoa, Grupo Velatiako zuzendari korporatibo nagusia
- Álvaro Arrizabalaga, Lantegi Batuakeko betetze-unitateko arduraduna
- Susana Molinuevo, CIE Automotibeko Barne-auditoretza, Betetzea eta Gizarte-erantzukizun korporatiboa saileko zuzendaria
- Gonzalo Sánchez-Alber, Elecnor taldeko Barne-auditoretza eta Betetze saileko zuzendaria.

Moderatzailea: Fernando Fraile, Iberdrola Españako Betetze saileko zuzendaria.

12:30-13:00 h. Aurkezpena: *“Eremu publiko eta pribatuan betetze-sistemak garatzeko I. programa.”*

- Sylvia Enseñat de Carlos, Asociación Española de Compliance (ASCOM) erakundeko presidentea.

13.00-13.30 h. Aurkezpena: *“Kontratazio publikoari eta lehiari buruzko gida”.*

- Alba Urresola, Lehiaren Euskal Agintaritzako presidentea.

13:30-13:40 h. Jardunaldiaren itxiera

Nerea Martiartu, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusia eta Fernando Fraile, Iberdrola Españako Betetze saileko zuzendaria.